

LARRAMENDIREN OROITZAN.¹



Jáunak: Gau osgarbi batean begiratzen badegu Zeru urdiñera, ikusten diran millaka izarren artean, agertzen dira batzuek beste guziak baño argi bizi eta dizdizariagoa egiten dutenak.

Modu berean, Euskal-erria onratzen duten izar guzietan, agertzen zaizkigu batzuek bereziak, argi-errañu biziagoak zabalitzen dituztenak. Oetako bat da oraiñ berreun urte sortu zan izarra: Garagorriin jayotako Aita Manuel Larramendi, berrogei urtean Euskal-erriaren onekako lan asko egiñ ta zeruratu zana.

Larramendi zéiñ zan galdetuko du, bear bada, Euskat-erria zér dan. ez dakien arrotzen batek. ¿Zéiñ zan Larramendi...? Galde zayozute jakintsuai; galde zayozute antziñako, izkuntzen sustraiyak billatzen sayatzen diradenai; galde zayozute, batez ere, Euskal-erriko oiturak, Euskal-erriko izaera eta Euskal-erriaren gloria guztiak beregan gordezten dituen Euskal-izkuntzaren maitaleai. Oyek esango dizute nór zan Larramendi: oyek esango dizute argia zuela burua; aundia biotza; eta buru artan sortzen ziran pensamentu goyaketa: biotz ark sentitzen zituen asmo biziyak, guzti-guztiyak zirala Euskal-erriaren onerako. Etzan izutu asko jakintsu edo jakintsutzakok Euskal-izkuntzaren kontra esaten zituzten gauzakgatik: ez ta ere, bere lenbiziko izkribuak ikustean jakintsu oyek esan zutenak atzeratu, zuen: ez.

Iñoiz izkribatzen bada Euskal-izkiren kondaira, Larramendiren izena agertuko da mendi gañ-gañ batean bezela. Mendi-gañ orrez

(1) Discurso de D. Carmelo Echegaray, pronunciado por su autor en la Sesión literaria en honor del P. LARRAMENDI, celebrada en la Casa Consistorial de Andoain la tarde del 28 de Diciembre de 1890.

aronztik ez da ageri, jela, otza eta tokian tokian landare banaka batzuek ezpada: mendi-gañ orrez ononztik, eguteran dauden kanpo ederrak, arbolaz, lorez eta frutuz estaliak. Larramendirik izan ezpazan (esan genezake inor iraindu gabe) etzan izango Humboldtik, etzan izango Astarloarik, etzan izango beste ainbat gizon argi, euskeraren aberastasunak erakusten sayatu diradenak.

Baña Larramendiren ta bere ondorengo argidotarren lanak etzuten ematen bear zan aña frutu, sakabanatuak zeudelako. Eta orra non, oraiñ urte asko eztala sortzen dan gure Gipuzkoa maitean gizon bat, umiltasun aundikoa, baña bere umiltasunean asko balio zuena. Ark bildu zituen len bakoitza bere aldetik zebiltzan Euskerazaleak; ark eman zien beren lanai bear zuten indar eta batasuna. Guztiak uste det dakizutela zéiñ dan nere biotzak oraiñ gogoratzen duen gizona; noren izena datorren oraiñ nere ezpañetara: Manterola. Oroitz bat Manterola-ri; baña ez dedilla oroitz utsa izan. Oroitz orren lagun sortu dedilla gure biotzetan, Larramendi eta Manterolaren antzekoak izateko gogo bizi bat, berak bezela Euskera maitatuaz.

Jaungoikoak eman diozka Euskaldunari munduan diran bi gauzik aundienak: mendiak eta itsasoa. Eta mendiak eta itsasoak gordeko dute gure izkuntz maitagarria. Mendian, garo-tartean, aritzez eta gaztañaz estalirik dagoen baserrian bizi dan nekazaria, eta itsasoarekiñ burruka, eta bere afarrakiñ bustirik dabillen arrantzalea, oyek izango dira Euskeraren gordetzalleak.

Baña ori ez da aski. Euskerak zabaldu bear du Euskal-erri guztira. Erakutsi zayogun euskeraz aurchoai. ¡Nork daki gaur eskolara dijoazen aurchoetan badaude urrengo gizaldietako Larramendiak! Euskera maitatu eta erakutsi zayogun, Euskaldunak geran ezkeroz, eta biotzetik esan zayogun gure lur maiteari: ¡O gure Euskal-erri maitagarria! Zu zera erri guzieran paregabea; zu zera gure seaska kutun bedeinkatua; zagan daukazkigu gure poz ta alaitasun guztiak, eta gure penak gozatzan dira zuri aditzean, Saratar batek moldaera pollitean esaten duen bezela:

«Ez naiz iartu, ez iartuko; segur dut bizia;
Ez badautet azpian zelaitzen mendia.»

